

2014 urteko kultur eta gazte erakundeentzako diru-laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita seian egin zuen bileran, honako oinarriak onartu ditu:

KULTUR ETA GAZTE ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1.- Diru-laguntzaren xedea.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen xede da finantziatzea bai kultur elkarten urteroko programetako jarduerak eta bai elkarteek sustatzen dituzten jarduera zehatzak, interesgarriak badira eta Kultura Sailaren urteko programazioaren osagarri badira. Horrez gain, kultur elkarteak existitzeko ezin bestean egin behar dituzten gastuak ere diruz lagunduko dira.

Ez dira diru-lagunduko beste bide batetik diruz lagundu diren jarduerak, bera, ezin dira proiektu honetan sartu.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak burutzen dituzten erakundeei diru-laguntza ekonomikoa ematera mugatzen da deialdi honen helburua. Hortaz, bere xedea ez da udal lokalak uztea jarduera horiek burutzeko.

2.- Elkarte onuradunak bete beharreko baldintzak

Onuraduntzat hartuko da goiko atalean deskribatu den jarduera sustatu edota burutzen duen edozein elkarte, beti ere honako eskakizun hauek betetzen baditu:

- 1.- Zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- 2.- Pertsona juridikoa bada, kultur elkarte edo merkataritza-sozietate gisa eratuta egotea, indarreko legearen arabera.
- 3.- Egoitza soziala Trapagaran udalerrian edukitzea, eta bere jarduerarik gehienak udalerrri honetan egitea, Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroan inskribatuta egongo delarik.
- 4.- Trapagarango Udaletik aurrerago jaso dituen diru-laguntzak justifikatuta edukitzea.

3.- Eskaerak aurkezteko modua

Oinarri hauen eranskin modura datorren eredu ofizialean aurkeztuko dira eskaerak. Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira. Honako agiri hauek aurkeztuko dira eskaerarekin batera:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia
- Elkarten Erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria (Elkarteentzat)
- Zergak ordainduta edukitzearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzako obligazioak ordainduta edukitzearen ziurtagiria.
- (Merkaritza- sozietateentzat) Sozietatearen eraketa-eskritura.

- Diru-laguntza kobratzeko kontu korrontearen titularitatearen ziurtagiria.
- Burutuko den jardueraren proiektua. Proiektu honetan honako atal hauek sartuko dira ezin bestean:
 - 1.- Garatuko den jardueraren deskribapen orokorra
 - 2.- Parte hartzaile eta taldeen gutxi gorabeherako kopurua
 - 3.- Jarduera burutuko den tokia eta data
 - 4.- Aurrekontu zehaztua. Aurrekontu honetan agerian jarriko dira jardueraren burutzapenaren ondorioz lortuko diren sarrerak, alegia:
 - publizitateagatiko sarrerak
 - partikularren edo erakunde publiko zein pribatuen laguntzak
 - txartelengatiko diru-sarrerak
 - materiala, loteria, zozketak saltzeagatiko sarrerak
 - Izenemateagatiko kuoten sarrerak
 - Jarduerarekin lotutako beste edozein sarrera

Gastuen aurrekontuan jarduerarekin zuzenean lotuta dauden gastuak baino ez dira sartuko. Gastuen aurrekontuan gastu bakoitza zehaztuko da, gerora Udalak kontrolatu ahal izateko.

Jarduera bat baino gehiagorentzako diru-laguntza eskatzen bada, jarduera bakoitzaren proiektua aurkeztu beharko da.

4.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak 30 laneguneko epean aurkeztuko dira, oinarri hauek argitaratzen direnetik kontatzen hasita.

Unean uneko jarduerak egiten badira, eskaerak edozen memetotan egin daitezke, beti ere ez bada agortu diru-laguntza deialdi honetarako onartutak diru-kopurua.

5.- Egilesteko prozedura

Egilesteko prozedura norgehiagoka izango da.

6.- Egilesteko irizpideak

Irizpide Orokorrak	Berariazko irizpideak	Puntuazioa	Gehienez	Guz-tira
1. Irizpidea: Noraino dagoen errotuta elkarteak eta zenbateraino dagoen finkatuta Valle de Trápaga-Trapagarango kirol alorrean	Elkarteak herrian duen tradizioa	10 urtetik gorako tradizioko jarduera: 5 puntu 9-7 urteko tradizioko jarduera: 3 puntu 6-3 urteko tradizioko jarduera: 1 puntu	5	15
	Elkarteak duen bazkide kopurua	Puntuaziorik altuena onuradun kopururik gehien duen elkartearentzat eta irizpide bera erabiliko da gainerako elkarteei puntuazioa esleitzeko	10	
2. Irizpidea: Egingo den proiektuaren garrantzia Valle de Trápaga-Trapagarango kirol ingururako.	Elkarteak programaturiko kirol ekitaldietara joaten direnen kopurua (parte-hartzaileak/publikoa).	Puntuaziorik altuena onuradun kopururik gehien duen elkartearentzat eta irizpide bera erabiliko da gainerako elkarteei puntuazioa esleitzeko.	10	15
	Kirol jarduera herrian ezagutzera emateko hartzen diren neurriak (publizitatea, kartelak, internet...)	Neurririk ez bada hartzen: 0 puntu Neurriak hartzen badira: 1 - 5 puntu	5	
3. Irizpidea:	Udal egitarauetan parte hartzea:	Puntuaziorik handiena emango zaio udal	10	15

Jarduera edota proiektua Kultura Sailaren urteko programaziora egokitzea	Inauterietan, Gabon kanpainan, herriko jaietan, auzoetako jaietan...	programetan gehien parte hartzen duen elkarteari eta irizpide bera erabiliko da gainerako elkartei puntuazioa esleitzeko.		
	Idea eta proiektu berriak.	Puntuaziorik handiena emango zaio ideia eta proiektu berriak aurkezten dituen elkarteari. 0 puntu emango dira ideia berririk ez bada aurkezten.	5	
4. Irizpidea: Hizkuntza normalkuntzako irizpena kontuan hartzea.	Jarduerak euskaraz egitea.	Puntuaziorik handiena emango zaio bere jarduera guztiak euskaraz egiten duen elkarteari.	15	15
		Jardueren %25 - 75% euskaraz egitea	10	
		%25 baino gutxiago	0	
5. Irizpidea: Elkarteak egiten duen ahalegin ekonomikoa: autofinantziazioa	Autofinantziazio maila.	Guztia finantziatzen du Udalak: 0 puntu. %5- % 20 autofinantziatzen da: 5 puntu. Aurrekontuaren %20 baino gehiago dator autofinantziaziotik: 10 puntu.	10	10
6. Irizpidea: Programa edota proiektuaren kalitatea	Proiektuaren aurkezpena: helburuak, jarduerak, aurrekontuak, ebaluazioak, zabalkundeak.	Proiektuaren egokitasuna: 0tik 10 puntura.	10	10
7. Irizpidea: Genero berdintasunari eta inmigratioari emandako tratamendua	Genero ikuspegiaz egiten diren jarduerak, lengoia eta irudi sexista erabili gabe eta etorkinak integratuz.	Kontuan hartzen da lengoia eta irudia, eta proiektuan sartzea etorkinak.	5	5
8. Irizpidea: Elkarteak herriko auzoetan kokatzea.				5
9. Irizpidea: Gazteria eta aisialdi eremuko lehentasunetara egokitzea jarduera				10
				100

7.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Kiroleko Informazio Batzordeak aurkeztu diren eskaera desberdinak aztertu ondoren, diru-laguntzak esleitzea proposatuko du, aurreko atalean aipatutako irizpideen arabera.

Elkarte eskatzaile bakoitzari emango zaion diru-kopurua aurkezten den eskaera-kopuruaren eta indarreko aurrekontuaren barruan horretarako dagoen aurrekontuko partidaren mende egongo da.

Emango den diru-laguntzaren zenbatekoak eskatutako zenbatekoa izango du oinarri eta zenbateko horri puntuetatik ateratako portzentajea aplikatuko zaio.

Diru-laguntzaren gehieneko kreditua gaundituko balute eskaerak, era honetara banatuko litzateke:

Gehieneko zenbateko erabilgarria zatitu egingo da eskatutako diru-laguntza guztien aldi baterako esleipenaren artean, emaitza aldi baterako esleipenari aplikatuko zaion koefiziente zuzentzaile izango delarik.

Eskaeretan argi eta garbi utziko da udalari eskatzen zaion diru-kopurua.

8.- Organo eskudunak

Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Kiroleko Informazio Batzordea izango da diru-laguntzak egilesteko behin behineko ebazpena egingo duen organo eskuduna.

Erakunde desberdinei diru-laguntzak ematea erabakiko duen organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

9.- Ebazpena jakinarazteko epea

Diru-laguntza ematea ebazten denetik 15 eguneko epean jakinaraziko zaie onuradunei.

10.- Kontabilitate-liburu eta erregistroak

Erakunde onuradunak kontabilitate-liburuak eta erregistroak eduki beharko dituzte, legeak agintzen duen bezala.

11.- Justifikatzeko epea eta modua

30 eguneko epean, jarduera burutu denetik, justifikazio ekonomikoa aurkeztu beharko da, edo urteko programazioa amaitu ondoren, beti ere, 2015ko martxoaren 31 baino lehen.

Subentzionaturiko gastuak justifikatzeko kontuaren bidez egingo da justifikazioa. Gastuen justifikazioa onuradunak sinatuta egon beharko da. Justifikazioarekin batera dagozkion fakturak aurkeztuko dira, indarreko legerian ezartzen diren baldintzak beteko dituztelarik.

Ez da onartuko justifikatzeko agiri modura fakturentzako eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituen ezelako agiririk.

Fakturentzat eskatzen diren baldintzak hauexek dira:

- Jatorrizko faktura edo fotokopia konpultsatua
- Enpresaburuaren IFZa
- Enpresaburuaren izena
- Bezeroaren IFZa
- Bezeroaren izena
- Operazioaren deskribapena
- Zenbateko garbia, aplikaturiko BEZ mota
- Faktura zenbakia
- Faktura egin den eguna

Halaber, gastuen justifikazioari publizitaterako erabili den materialaren ale bat erantsiko zaio (kartelak, eskuko programak,...)

12.- Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntza onartzen den unean egiletsitako diru-kopuruaren % 100 ordainduko da.

Ezarrিতাকo epeetan behar bezala justifikatzen ez bada edo Diru-laguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan aipatzen diren diru-itzulketarako zioetako baten pean erortzen bada, itzuli egin beharko da justifikatu ez den zenbatekoa.

13.- Inguruabarren aldaketa

Diru-laguntza jasotzeko inguruabarrak nabarmenki aldatzen badira, ebazpena aldarazi daiteke.

14.- Beste diru-laguntza edo sarrerekiko bateragarritasuna

Emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako lortu daitezkeen beste diru-laguntza eta sarrera batzuekin.

Lortutako beste sarrera batzuk gehi udalaren diru-laguntzak ez dute inoiz jardueraren gastu osoa gaindituko.

15.- Araudi erregulatzailerak

Oinarri hauetan ez ezik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera arautuko dira diru-laguntzak. Lege hori udaleko diru-bilketa sailean eskura daiteke.

16.- Onuradunen betebeharrak

Onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Elkarteen araudi erregulatzailerak ezartzen dituen betebeharrak betetzea.
- b) Diru-laguntza jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela justifikatzea.
- c) Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketapean jarriko da eta behar beste informazio emango du jarduketara horiek burutzeko.
- d) Egilesten proposamena eman baino lehen egiaztatuko du zergak eta Gizarte Segurantzarekiko gastuak ordainduta dauzkala.
- e) Kontabilitate-liburuak edukiko ditu eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken legeriak eskatzen dituen gainontzeko agiriak.
- f) Jasotako fondoak zertan erabili diren justifikatzeko agiriak gordetzea.
- g) Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzen Lege orokorraren 37 artikuluan aipatzen diren zioetako bat gertatuz gero.
- h) Sarrera eta gastu guztien justifikazioa aurkeztea.
- i) Eskuko programetan, karteletan, argazkietan, argitalpenetan eta gainontzeko beste agiri grafikoetan espresuki adieraziko da Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren babesa, ikusteko moduko logotipo ezarriz, diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera.
 1. Kartela bada: haren beheko atalean jarriko da, gutxienez espazioaren %10 hartuko duelarik.
 2. Triptikoa, foiletoa edo antzekoetan: Lehen orrialdearen beheko aldean, gutxienez espazioaren %20 hartuko duelarik.
- j) Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzatan argitaratuko dira ekintzen iragarkiak.
- k) Indarreko arautegia betetzea jendurreko jarduera eta ikuskizunen antolaketari dagokionean (erantzukizun zibileko aseguruak, joko eta ikuskizunen arautegia, gune publikoak erabiltzeko udal baimena, eta abar).

ERANSKINA

ERAKUNDEAREN DATUAK

ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN IZENA

.....
ELKARTEAREN ERREGISTRO ZENBAKIAI.F.K.....

HELBIDESOZIALA (kalea edo plaza).....

HERRIA.....

PROBINTZIA.....

TELEFONOA.....

FAXA.....

BANKU-ERAKUNDEA.....

SUKURTSALA..... **KONTU ZENBAKIA**.....

ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONA JURIDIKOAREN ORDEZKARIA

IZEN-ABIZENAK.....

KARGUA.....

N.A.N......

HELBIDEA.....

TELEFONOA.....

e-maila

TOKIA.....**DATA**.....

SINADURA

ERAKUNDEAREN ZIGILUA

Goian aipaturiko pertsonak aitortzen du diru-laguntza hauen oinarri arautzaileen edukia ezagutzen dituela eta elkartearen izenean eskatzen duela deitutako egilespen-prozeduran parte hartzea.

Halaber aitortzen du eskaera honetan agertzen diren datuak egiazkoak direla.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014ko ekainaren 3an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra